

Sanrokeak • Gernika

Indar handia

Musika gogorra gustuko dutenek badute zertaz gozatu Gernikako jaietan

Josu Bideguren | GERNIKA

Goitek ere entzun ahal izango dute Gernikara bilduko diren Rock taldeek eskainiko dituzten emanaldiak. Musika mota hau gustuko ez dutenek hobe dute Pasealekura ez hurbiltzea Gernikako jaietan. Euskal Herrian eta Espainian jadanik ezagunak diran taldeez gainera, herriko taldeek ere izango dute beren txokoa Gernikako jaietan.

Atzo Audience taldeak jo zuen, eta azken urte bietako lehiaketetan hainbeste sari zergatik irabazi dituen azaldu digute taldekideek. Fuggazi, Calepsico eta Jon Spencer Blues Explosion taldeekin konparatzen den taldea Benicassimgo festibaletik etorri berria da. «Radio 3-ko maketa lehiaketa irabazi dugunez, Benicassimgo festibalean egoteko aukera izan dugu» azpimarratu digute Ager eta Hanot taldekideek.

Hori ez da parte hartu duten lehiaketa bakarra: «Azkeneko urte bietan Bilboko Hiria lehiaketan finalera heldu gara». Eta hainbesteko arrakastarekin, diskoa grabatzeko aukera izan dute: «zemendian irtengo den disko bat ere grabatu dugu,



TONI LOSAS / EFE

Audience taldeak Benicassimgo jaialdian jo du aurten.

jadanik. Beraz, ezin gara asko kexatu».

Eskarmentu handiko musikari taldea

Talde gazte horretako kide batzuek bestelako proiektu batean ibili ziren, guztiz bestelakoa, Agerrek dioenez: «Beste estilo bat jorratzen genuen, ez dauka zer ikusirik Audiencek egiten duenarekin. Orain egiten

dugun musika rockeroagoa da. Bestalde, lehen gaztelaniaz kantatzen genuen, eta orain, berriz, euskaraz kantatzen dugu». Eraginei dagokienez, mota askotako musika entzuten dute taldeko partaideek: «Batzuek David Bowei, beste batzuek 60ko hamarkadako musika...».

Atzo Audience taldearen txanda izan zen, eta bihar

Emaioiok talde gaztearena izango da. 18 urte inguruko kideak dituen taldeak metala eta hardcorea jorratzen ditu. «Musika gogorra egiten dugu. Su ta Gar, Eraso eta horrelako taldeen musika antzerakoa», esan digu Iñigo taldekideak.

Hiru urte batera jo eta ke lanean

Gazteak izan arren, hiru urte

EGITARAUA

GAUR

09:00: Karabina Lehiaketa, Santa Luzian.
10:00: Errenteriako Gazteak taldearen diana.
11:00: Meza eta Hiriko aurrekua, Elai Alai dantzari taldearen eskutik.
11:30: Umeen txokoa, San Juan Ibarran eta merkatuko plazan.
12:00: Busturialdeko gaita joleak, kalerik kale.
12:30: Gernikako garrafaren prestaketa eta probaketa Pasealekuan txistorradarekin. Kuadrilen sukalki txapelketa martxan izango da bien bitartean.
14:30: Herri bazkaria kaleetan. Bazkaria animatzeko bertsolariak, dantzariak, fanfarreak, dultzaina joleak, Urdaibai musika taldea eta abar izango dira mahai guztietan.
17:00: Gernika Hiria Esku Pilota Txapelketako finala.
17:30: Umeen txokoa, San Juan Ibarran eta merkatuko plazan.
18:30: Kukubiltxo antzerki taldea, San Juan Ibarran. Kukubel ikuskizuna eskainiko dute.
19:30: Euskal Kantu jaialdia: Erramun Martikorena, Raket Pujana, Garikoitz bikotea eta Gael Laroude.
23:00: Suziriak: Astondoa su etxea.
23:30: Boleroak San Juan Ibarran: Arantza eta Pantxo.
23:30 Rock jaialdia Pasealekuan: La Polla

daramatzate elkarrekin, eta maketa bat ateratzeko denbora ere izan du Emaioiok taldeak.

«Oso pozik gaude iazko udan atera genuen maketarekin; harrera ona izan zuen, eta ondo saldu zen. Disko bat ateratzeko asmoa ere badaukagu, eta beharbada etorkizunean aterako dugu», gaineratu digute taldeko kide guztiek, harrotasunez.

EUSEBIO BITXITEGIA

CERTINA DS
RAYMOND WEIL
GENEVE

MONTBLANC
S.T. Dupont

OMEGA

HEUER

LONGINES

Barrenkale Barrena • (Urtarrilak 8 izkina)
94 625 27 32 tel. • 48300 G E R N I K A

SAN FIDEL IKASTOLA

San Fidel Ikastola

Karlos Gangotxi, 11
Tel.: 94 625 09 80 - Faxa: 94 625 70 03
GERNIKA (Bizkaia)

AITA VILLASANTE

Udal Euskaltegia

Artekale, 8 - 1.a Tel./Faxa: 94 627 02 11
G E R N I K A - L U M O

ZEPELIN

DISKO - TABERNA

Jaietan giro euskaldun eta oso jatorra

Miguel de Unamuno kalea, 1 - GERNIKA

GERNIKAKO ARRANO KULTUR ELKARTEA

EUSKARA, INSUMISIOA,
ASKATASUNA, KAÑA, AMNISTIA,
JAIA, BERDINTASUNA,
UMOREA, BORROKA
...eta zure xoxak

ARRANON

aterpe

taberna

Fray Martín de Murua, 1
Tel. 94 625 74 84

48300 GERNIKA
BIZKAIA

OPTIKO

Arrien Optika

OPTOMETRISTA

O.P.E.: 415/98

Urkieta kalea, 10 - Gernika Bizkaia
Tel./Faxa: 94 625 63 63